



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 21a

110. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

- Foru Legea, lau kreditu berezi –guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak– eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzekoa, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- Foru Legea, 2004rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).
- Foru Legea, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (12. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren titulua (Kontratazioa) aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (14. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Legea, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarren irakaskuntza eta erabilera arautzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (20. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarren erabilera arautzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (21. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskarren erabilera arautzekoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (21. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan. Erretiratutako mozioa (22. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Legea, lau kreditu berezi –guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak– eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko**

*OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, ondoko Foru Legea onetsi zuen: “Foru Legea, lau kreditu berezi –guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak– eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko”.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Foru Legea, lau kreditu berezi –guztira, 3.960.000 euro egiten dutenak– eta 14.497.261 euro egiten duen kreditu-gehigarri bat emateko eskatzea, Ekonomia eta Ogasun Departamentuan, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan, Osasun Departamentuan eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuan sortutako aurrekontu-beharrizanei aurre egin ahal izateko**

Indarra duen aurrekontuko gastuen kontzeptu batzuetan aurrekontu-eskasiak sumatu dira. Premia horiei aurre egiteko ematen dira behar diren kreditu bereziak eta kreditu-gehigarriak, Nafarroa-

ko ogasun publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**1. artikulua.** Lau kreditu berezi emanen dira, guztira 3.960.000 euro egiten dutenak, gastuetako kontusail hauei aplikatzeko:

– 114002-11300-7709-612700, “SONAGARentzako ekarpenak” izenekoak. 3.000.000 euro.

– 422000-41700-4810-421100, “Nafarroako Antzerki Eskola” izenekoak. 150.000 euro.

– 451000-42110-4816-456106, “Hitzarmenak Iruñeko Ganbera Abesbatzarekin eta Iruñeko Orfeoiarekin”. 300.000 euro.

– 910001-91130-7810-313502, “ADACENentzako ekarpenak” izenekoak. 510.000 euro.

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarri bat emanen da, 14.497.261 eurokoa, gastuetako kontusail hauei aplikatzeko:

– 541002-52220-2200-412200, “Bulegoko materiala” izenekoak. 35.000 euro.

– 541002-52220-2214-412200, “Kontsumoko erremintak eta tresnak” izenekoak. 40.000 euro.

– 541002-52220-2216-412200, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoak. 136.000 euro.

– 541002-52220-2220-412200, “Komunikazioak” izenekoak. 20.000 euro.

– 541002-52220-2286-412200, “Gai kimikoak eta laborategikoak” izenekoak. 699.000 euro.

– 542000-52230-2213-412100, “Protesiak” izenekoak. 1.421.000 euro.

- 542000-52230-2216-412100, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 1.400.000 euro.
- 542000-52230-2286-412100, “Laborategiko gai kimikoak” izenekoa. 563.000 euro.
- 543000-52240-2216-412100, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 1.923.000 euro.
- 543000-52240-2286-412100, “Laborategiko gai kimikoak” izenekoa. 200.000 euro.
- 544000-52250-2169-412100, “Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 10.000 euro.
- 544000-52250-2200-412100, “Bulegoko materiala” izenekoa. 10.000 euro.
- 544000-52250-2210-412100, “Elikagaiak” izenekoa. 20.000 euro.
- 544000-52250-2213-412100, “Protesiak” izenekoa. 500.000 euro.
- 544000-52250-2214-412100, “Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak” izenekoa. 20.000 euro.
- 544000-52250-2216-412100, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 160.000 euro.
- 544000-52250-2220-412100, “Komunikazioak” izenekoa. 13.000 euro.
- 544000-52250-2270-412100, “Ikuzketa zerbitzuko kontratua” izenekoa. 6.000 euro.
- 544000-52250-2279-412100, “Hirugarrenek egindako beste lan batzuk”. 7.000 euro.
- 544000-52250-2280-412100, “Elektrizitatea, ura eta gasa” izenekoa. 60.000 euro.
- 544000-52250-2281-412100, “Erregaiak, labaingarriak eta berokuntza” izenekoa. 25.000 euro.
- 544000-52250-2286-412100, “Laborategiko gai kimikoak” izenekoa. 12.000 euro.
- 545000-52400-2120-412100, “Etxeak eta eraikinak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 35.000 euro.
- 545000-52400-2169-412100, “Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 60.000 euro.
- 545000-52400-2200-412100, “Bulegoko material arrunta ez-inbentariagarria” izenekoa. 45.000 euro.
- 545000-52400-2213-412100, “Protesiak” izenekoa. 125.000 euro.
- 545000-52400-2214-412100, “Kontsumoko erremintak eta tresna txikiak” izenekoa. 25.000 euro.
- 545000-52400-2216-412100, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 425.000 euro.
- 545000-52400-2217-412100, “Jantziteria” izenekoa. 10.000 euro.
- 545000-52400-2220-412100, “Telefono, posta eta telegrafiako komunikazioak” izenekoa. 40.000 euro.
- 545000-52400-2270-412100, “Ikuzketako zerbitzuak” izenekoa. 65.000 euro.
- 545000-52400-2278-412100, “Elikadura kontratua” izenekoa. 50.000 euro.
- 545000-52400-2279-412100, “Hirugarrenek egindako beste lan batzuk”. 21.000 euro.
- 545000-52400-2280-412100, “Elektrizitatea, ura eta gasa” izenekoa. 75.000 euro.
- 545000-52400-2281-412100, “Erregaiak, labaingarriak eta berokuntza” izenekoa. 37.000 euro.
- 545000-52400-2283-412100, “Konponketa eta zainketarako materialak”. 30.000 euro.
- 545000-52400-2284-412100, “Garbiketa eta txukuntasunerako materialak”. 15.000 euro.
- 545000-52400-2286-412100, “Gai kimikoak eta laborategikoak” izenekoa. 300.000 euro.
- 545000-52400-2286-412102, “Gas medikoak” izenekoa. 20.000 euro.
- 545001-52420-2169-412200, “Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 5.000 euro.
- 545001-52420-2200-412200, “Bulegoko materiala” izenekoa. 14.000 euro.
- 545001-52420-2214-412200, “Erremintak eta tresna txikiak” izenekoa. 8.000 euro.
- 545001-52420-2216-412200, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 32.000 euro.
- 545001-52420-2220-412200, “Komunikazioak” izenekoa. 16.000 euro.
- 545001-52420-2280-412200, “Elektrizitatea, ura eta gasa” izenekoa. 22.000 euro.
- 545001-52420-2286-412200, “Gai kimikoak eta laborategikoak” izenekoa. 25.000 euro.
- 546000-52500-2216-412100, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 250.000 euro.

- 546000-52500-2286-412100, “Gai kimikoak eta laborategikoak” izenekoa. 150.000 euro.
  - 547000-52300-2220-412200, “Komunikazioak” izenekoa. 120.000 euro.
  - 547001-52310-2200-412200, “Bulegoko materiala” izenekoa. 75.000 euro.
  - 547001-52310-2216-412200, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 445.000 euro.
  - 547001-52310-2279-412200, “Aho-hortzeta-ko osasunaren programa” izenekoa. 295.000 euro.
  - 547001-52310-2286-412200, “Laborategiko gai kimikoak” izenekoa. 370.000 euro.
  - 547002-52331-2279-412302, “Laguntza psikiatrikoa besteren erietxeetan”. 124.000 euro.
  - 547004-52332-2280-412300, “Elektrizitatea, ura eta gasa” izenekoa. 25.000 euro.
  - 548000-52202-2279-411200, “Osasun larrialdietarako eta anbulantzietarako laguntza plana”. 42.000 euro.
  - 548000-52202-2590-411202, “Hitzarmena San Juan de Dios klinikarekin”. 100.000 euro.
  - 548000-52202-2590-411203, “Hitzarmenak etxez-etxeke dialisirako” izenekoa. 14.000 euro.
  - 548000-52202-2590-411204, “Hitzarmenak oxigenoterapiarako” izenekoa. 100.000 euro.
  - 548000-52202-2590-411205, “Hitzarmena Klinika Unibertsitarioarekin”. 3.497.261 euro.
  - 549000-51200-2169-413900, “Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 6.000 euro.
  - 549000-51200-2216-413900, “Kontsumoko osasun materiala” izenekoa. 12.000 euro.
  - 549000-51200-2219-413900, “Bestelako hornidura bereziak” izenekoa. 12.000 euro.
  - 549000-51200-2220-413900, “Telefono, posta eta telegrafiako komunikazioak” izenekoa. 9.000 euro.
  - 549000-51200-2279-413900, “Hirugarrenek egindako beste lan batzuk”. 42.000 euro.
  - 549000-51200-2280-413900, “Energia elektrikoa, ura eta gasa” izenekoa. 9.000 euro.
  - 549001-51231-2169-413900, “Bestelako ondasun higigarriak konpondu, mantendu eta zaintzea”. 6.000 euro.
  - 549001-51231-2219-413900, “Bestelako hornidura bereziak (mamografiak egiteko filmak, etab.)” izenekoa. 14.000 euro.
- 3. artikulua.** 1. artikuluan aipatu kreditu bereziak eta 2. artikuluan aipatu kreditu-gehigarria indarra duen gastuen aurrekontuko kontusail hauen kargura finantzatu dira:
- 051000-02100-6021-222104, “Aplikatu gabe luzatutako kredituak”. 2.000.000 euro.
  - 112003-11430-9020-011102, “Aplikatu gabe luzatutako kredituak”. 5.000.000 euro.
  - 320000-32210-6000-431104, “Aplikatu gabe luzatutako kredituak”. 11.457.261 euro.
- Azken xedapen bakarra.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## Foru Legea, 2004rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa

### OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, 2004rako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### 2004rako toki azpiegituren plan bereziari buruzko Foru Legea

#### ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 61. artikuluan agintzen du Nafarroako Gobernuak, hartarako gaitasuna ematen dion foru lege bat oinarri, inbertsio planak ezarriko dituela toki entitateekin lankidetzan aritzeko tresnatzat, eta plan horien helburu nagusia izanen dela Nafarroako lurralde osoan segurtatzea nahitaezko udal zerbitzuak egon daitezen.

Hori betetzeko, bada, zenbait arau onetsi dira bata bestearen ondotik; haietarik berrienak 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea eta 2001-2003rako plan bereziari buruzko uztailaren 5ko 16/2001 Foru Legea dira, orain garatzen eta betetzen ari direnak.

Tresna horiei esker, kontsignatutako kapital transferentzien partiketa objektiboa lortu da, nahiz eta aurrekontuaren gutxiegitasunak ezindu duen eskatutako inbertsio guztiak asetzea. Plan horien betetzeak agerian utzi du zenbait eremuren egoera, beren kokaera geografikoagatik edo populazio gutxi eta barreiatua izateagatik edo bestegatik, makurtu dela, haien inbertsioak ezin izan baitira sartu hiru urteko planetan, beste herrietan lehenetasun handiagoko obrak zeudelako, edo haien finantzen egoera oso larria zelako. Inbertsioetarako dirutzak arrazionalki igotzeak ere ez luke egoera hau konponduko.

Aipa dezagun, adibidez, presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzailearen kasua, irispide handikoa delako. Plan hori 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean ageri zen, zeinaren finantzazio arrunta, kapital transferentzien bidez-

koa, inbertsio kostuaren 100eko 90era iristen den. Parte-hartze portzentajea handia bada ere, defizita egoten da halako azpiegiturretan Nafarroako zenbait puntutan, batez ere kasuko toki entitateak hartarako finantzaketa bere gain hartu ezin eta ez direlako atxikitzen.

Bestalde, toki programazioko inbertsioei dago kienez, toki entitate guztiek aurkeztutako eskaerak hautatu eta lehenesteko formulak aukera ematen du konprobatzeko badi-rela zenbait obra, entitate bakoitzak erabiltzen duen defizit kontzeptuaren arabera laburrera begira beharrezkotzat hartuak baina hala ere inbertsio planetan sartzen ez direnak, zeren aplikatzen diren gainerako aldagaiek, inbertsioak biztanleko duen errentagarritasuna ere barne, nabarmen gutxitzen dutelako obra hautatu eta lehenesteko koefizientea.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 34. artikulua agintzen du ekintza publikoaren sektoreak arautzeko Foru Komunitateko legeetan zilegi izanen dela araubide bereziak ezartzea zenbait udalentsat, baldin beren kokaera geografikoagatik, jarduera nagusiagatik, ondare historikoagatik edo beste edozein berezitasunengatik komeni bada haien antolamenduan edo finantzazio sisteman tratamendu banakatua ematea.

Lortutako esperientzia ikusita, honelako azpiegitura oinarrikoak finantzatu, hautatu eta lehenesteko irizpideak moldatu behar dira, berdin direnek elkarrekin lehiatzeko aukera izateko moduan.

Nafarroako lurraldearen antolamenduan eta hiri sistemaz egin diren ikerketek agertu dute badi-rela garapen sozioekonomiko txikiagoko zenbait udal, eta horren ondorioz heldu zaizkiela gainbehera demografikoa, populazioaren zahartzea, euskarri produktibo atzeratua, garapen ekonomikoaren eta dotazioen maila apala eta beste hainbat aldagai esanguratsu.

Kontzeptu horiek parametro harturik, bada, herri zerranda bat ateratzen da, Nafarroako eremu deprimitutzat jotzeko modukoena; horiei eman nahi zaie finantza tratamendu berezia eta horiek dira foru lege honen helburu.

Oinarriko azpiegituz hornitzera bultzatzeko asmoan, ezin ahaztu da eginahalean lortu behar dela baliabideen aprobeitxamendurik handiena. Hortaz, eta erdietsi behar den efikazia helburu,

baliteke zenbait ekintzatarako toki entitateen borondatezko elkarteak sortu behar izatea.

Nafarroako eremu deprimituek dituzten premia gero eta handiagoak asetzeko, araubide berezi bat ezarri behar da 2004. urtera arte, indarrean den hiru urteko plana osatzeko, eremu horiek oinarritzko azpiegituretan izaten duten defizita berdintzeko funts eta finantzazio sistema banakatuaz ezarri, aukera emango diena horko herritarrei gainerako nafarrek eskura izaten dituzten oinarritzko zerbitzuak haiek ere izateko.

Aurreko guztia gogoan, lagundu behar zaie toki entitate horiei inbertsio behinenak egiteko: presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzailea, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalak, zoladurak, kaleetako argiteria, udaletxeak eta herri-bideak ere barne, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planerako eskaerak oinarri hartuta eta funtsak aplikatzeko arau honek erasaten dien entitateetarako erdietsi diren hautatu eta lehenesteko irizpideak aintzat hartuta.

Finantzaketari dagokionez, presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzaileari 100eko 10 emanen zaio 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planaren Foru Legeak agintzen duenaren osagarri; toki programazioko obretarako eutsi egiten zaio arau hori aplikatuta tokatzen den finantzaketari.

Foru lege honen ondoriozko dotazioak osagarriak dira 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak agintzen dituenen aldean; biek batera osatzen dute toki ogasunek kasuan kasuko ekitaldi ekonomikoan Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondotik toki entitateek jaso behar duten kapital transferentzien bidezko aportazioa.

Azkenik, arau honek toki azpiegituren sistemarekiko duen osagarritasuna aitorturik, uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta bera garatzeko araudiak agintzen duen prozedura erabiliko da foru lege honek espresuki aurreikusten ez dituen ekintzatarako.

**1. artikulua.** Foru lege honen helburua da 2004ko aurrekontu-ekitaldirako plan berezi bat ezartzea toki azpiegituren gaietarako, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta 2001-2003rako plan bereziari buruzko uztailaren 5ko 16/2001 Foru Legeak agintzen dutenaren osagarri. Planak eranskinean ageri diren herriak izanen ditu helburu, foru lege honek agintzen dituenetarako horiek hartzen baitira eremu deprimitutat.

**2. artikulua.** Finantzatu beharreko inbertsioak honakoak izanen dira, hurrenez hurren eta inbertsio mota bakoitzari funtsak aplikatuz, behin aurrekoa osatu ondoren: presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzailea eta 2004ko lanen planean sartu ez diren zoladurari buruzko toki programazioko lanak, baldin eta delako planean sartu ziren ura banatzeko eta saneamendurako sare lokaletarako inbertsioekin lotuta badaude, ura banatzeko eta saneamendurako sare lokalen lanak eta bai, halakorik bada, lan horiek erasandako kale-zoladurako lanak, bi inbertsio motak eskatu badira; kale-zoladurako lanak, kaleetako argiteria, udaletxeak eta, azkenik, herri-bideetako lana, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeko 2. eta 3. artikuluek zehazten duten moduan.

**3. artikulua.** Plan berezi honi egiten zaion aportazioa, Nafarroako aurrekontu orokorretik kapital transferentziak eginez gauzatuko dena, 3.906.579 eurokoa izanen da.

**4. artikulua.** Presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzailea gauzatu eta betearazteko, aintzat hartuko da 2001- 2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta haren garapeneko araudiek agintzen dutena.

**5. artikulua.** Toki programazioko lanak hautatu eta lehenesteko, aintzat hartuko da foru lege honek aipatzen dituen toki entitateek 2001-2003rako hiru urteko planaren formazio prozesuan aurkeztutako eskaerak izan duten hautatze eta leheneste koefizientea. Zehaztu diren klaseko lanetatik laburrera begira beharrezkotzat kalifikatu direnak baizik ez dira aintzat hartuko, azpiegituretan bakoitzak duen defizitaren arabera.

**6. artikulua.** Presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzaileko lanetarako aportazioa 100eko 10ekoa izanen da, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak inbertsio horietarako aurreikusten dituen aportazioen osagarri.

**7. artikulua.** Toki programazioko lanetarako aportazio araubidea 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeko 9. eta harekin bat datozen artikuluek agintzen dutena izanen da.

**8. artikulua.** Foru lege honetan jasotzen den plan berezia sortu, garatu, kudeatu eta betearazteko prozedura, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legeak eta lege hori garatzeko erregelamendua onesten duen azaroaren 20ko 36/2000 Foru Dekretuak ezartzen dutena izanen da, arau hone-

tan aurreikusten diren berezitasunen arabera moldatua.

**9. artikulua.** 1.-Ekitaldi ekonomiko batean erabiltzen ez diren baliabideak, hurrengo ekitaldikoei erantsiko zaizkie.

Kreditu bat erantsi eta eranste horri baimena eman zaion ekitaldi ekonomikoan aplikatzen ez bada, hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastu egoerari erantsiko zaio, ekitaldi horretan aplikatzeko.

2.-Emitzen kontuetako aurrerapenak aurreko ekitaldietako lanen kostu soberakinak berdintzeko erabiliko dira eta bai, hala behartzen bada, lan berriak egiteko ere, 2, 4 eta 5. artikuluetan agintzen diren modu eta baldintzetan.

**Lehenbiziko xedapen gehigarria.-** Presio handiko ur-horniduraren plan zuzentzaileko inbertsioak, foru lege honek aipatzen dituenak, toki entitate bat baino gehiagok elkar hartuta egitea beharrezkoa bada, hartarako elkarte sortzea izanen da baldintza; elkarte bakoitzak arau honen eranskinean ageri diren herriek osatua beharko du eta zilegi izanen da beste entitate batzuk ere elkartekide izatea, betiere populazioaren gehien-goia beste herri horietakoa bada.

**Bigarren xedapen gehigarria.-** Kapital transferentziei dagozkien zenbatekoa banatzeko, 2001-2003rako toki azpiegituren hiru urteko planari buruzko Foru Legeak eta 2001-2003rako plan bereziari buruzko uztailaren 5ko 16/2001 Foru Legeak toki azpiegituren gaietan agintzen dutena hartuko da aintzat."

**Azken xedapen bakarra.-** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

KODEA UDALERRIA

---

001 ABAIGAR

002 ABARTZUZA

003 ABAURREGAINA

004 ABAURREPEA

005 ABERIN

007 ADIOS

008 AGUILAR KODESKOA

011 ALLIN

AMILLAO

ARAMENDIA

ARBEITZA

ARTABIA

ETXABARRI

EULTZ

GALDIO

LARRION

MUNETA

ZUBIELKI

013 AMESKOABARREN

ARTATZA

BAKEDAO

BARINDAO

EKALA

GOLLAO

SAN MARTIN-AMESKOA

ZUDAIRI

014 ANTZINIBAR

ANTZIN

MENDILIBARRI

017 ANUE

ARITZU

BURUTAIN

EGOZKUE

ETSAIN

ETULAIN

LEAZKUE

OLAGUE

018 AÑORBE

020

ARAITZ

ARRIBE-ATALLU

AZKARATE

GAINTZA

INTZA

UZTEGI

021 ARANARATXE

022 ARANTZA

024 ARANO

026 ARAS

027 ARBIZU

028 ARTZIBAR

ARRIETA

ARTOZKI

AZPARREN

LAKABE

NAGORE

SARAGUETA

URITZ

HIRIBERRI-ARTZIBAR

030 ARELLANO

031 ARESO

033 ARIA

034 ARIBE

035 ARMAÑANTZAS

037 ARRUAZU

039 ARTAZU

040 ATETZ

KODEA	UDALERRIA	KODEA	UDALERRIA
	AROSTEGI		AINZIOA
	ZIGANDA		ZILBETI
	BERATSAIN		ERRO
	BEUNTZA		ESNOTZ
	EGUARATS		AURIZBERRI
	ERITZE		LINTZOAIN
043	AZUELO		MEZKIRITZ
044	BAKAIKU		ORONDRITZ
045	BARASOAIN		BIZKARRETA-GERENDIAIN
046	BARBARIN	093	EZKAROZE
047	BARGOTA	094	ESLABA
048	BARILLAS	095	ESPARTZA
049	BASABURUA	096	ESPRONTZEDA
	ARRARATS	099	ETAIU
	BERUETE	100	EULATE
	GARTZARON	102	EZKURRA
	IGOA	103	EZPOROGI
	IHABEN		AIESA
	ITSASO	110	GALIPENTZU
	JAUNTSARATS	111	GALOZE
	OROKIETA-ERBITI		IZIZE
	UDABE-BERAMENDI		ITZALLE
051	BEIRE		USKARTZE
052	BELASKOAIN	112	GARAIOA
055	BETELU	113	GARDE
056	BIURRUN-OLKOTZ	114	GARINOAIN
	BIURRUN	115	GARRALDA
	OLKOTZ	116	GENEVILLA
058	AURITZ	118	GOÑERRI
059	BURGI		AIZPUN
061	EL BUSTO		AZANTZA
063	CABREDO		GOÑI
071	GAZTELUBERRI		AMUNARRITZ
073	ZIORDIA		URDOTZ
074	ZIRAUKI	119	GORZA
075	ZIRITZA		GORZA
079	DESOJO		IGARI
080	DEIKAZTELU	120	GESALATZ
081	DONAMARIA		ARGIÑO
082	ETXALAR		ESTENOTZ
083	ETXARRI		GARISOAIN
085	ETXAURI		GENBE
087	ELGORRIAGA		IRURRE
089	ENERITZ		ITURGOIEN
090	ERATSUN		IZURTZU
091	ERGOIENA		LERATE
	LIZARRAGA		MUETZ
	DORRAO		MUNIAIN-GESALATZ
	UNANU		BIDAURRE
092	ERROIBAR	121	GIRGILLAO



KODEA	UDALERRIA	KODEA	UDALERRIA
	ETXARREN-GIRGILLAO	141	LAPOBLACION
	GIRGILLAO		LAPOBLACION
124	IBARGOITI		MEANO
	ABINTZAO	143	LARRAGOA
	IDOTZIN	145	ELIZAGORRIA
	IZKO	146	LEATXE
	GETZE-IBARGOITI	147	LEGARDA
125	IGUZKITZA	148	LEGARIA
	AZKETA	150	LEOTZ
	IGUZKITZA		ARTARIAIN
	LABEAGA		IRATXETA
	URBIOLA		LEOTZ
126	IMOTZ		OLETA
	ETXALEKU	151	LERGA
	ERASO	154	LEZAUN
	GOLDARATZ	155	LEDEA
	LATASA	156	LIZOAIN
	MUSKITZ	158	LONGIDA
	OSKOTZ		AOS
	URRITZA		ARTAXO
	ZARRANTZ		EKAI
127	IRAÑETA		MURELU-LONGIDA
128	IZABA		BILLABETA
129	ITUREN	160	LUKIN
130	ITURMENDI	162	MARAÑON
132	ITZAGAONDOA	166	MENDAZA
	ARDATZ-ITZAGAONDOA		ACEDO
133	ITZALTZU		ASARTA
134	JAUURIETA		UGABO
135	XABIER	168	METAUTEN
136	TXULAPAIN		ARTEAGA
	ARISTREGI		GAUZA
	BEORBURU		METAUTEN
	GARTZIRIAIN		OLLOBARREN
	LARRAIOTZ		OLLOGOIEIN
	MARKALAIN		ZUFIA
	NABATZ	170	MIRAFUENTES
	NUIN	172	ELO
	OLLAKARIZKETA	174	MORENTIN
	OTSAKAR	175	MUES
	OSINAGA	177	MURIETA
	UNTZU	179	MURILLO EL FRUTO
137	LABAIEN	180	MURUZABAL
139	LANA	181	NABASKOZE
	GALBARRA		AIZPURGI
	GASTIAIN		NABASKOZE
	NARKUE		USTAIZE
	ULIBARRI	182	NAZAR
	BILORIA	184	OKO
140	LANTZ	185	OTSAGABIA

KODEA	UDALERRIA	KODEA	UDALERRIA
186	ODIETA	234	UKAR
	ANOZIBAR	235	UXUE
	ZIAURRITZ	237	UNTZITIBAR
	GASKUE		ALTZORRITZ
	GELBENTZU		ARTAITZ
	GENDULAIN		ZENBORAIN
	LATASA		NAXURIETA
	OSTITZ		UNTZITI
	ERRIPA		ZABALTZETA
187	OITZ	238	UNTZUE
188	OLAIBAR	239	URDAZUBI
	ENDERITZ	240	URDIAN
	OLAITZ	241	URRAULGOITI
	OLABE		AIETXU
	OTSAKAIN		IMIRIZALDU
190	OLEXUA		IRUROZKI
192	OLORITZ		ONGOTZ
	ETXAGUE	242	URRAULBEITI
	MENDIBIL		ARTIEDA
	OLORITZ		GERETZ
	SOLTXAGA		ARRIPODAS
195	ORBAITZETA		SAN VICENTE
196	ORBARA		SANTSOAIN
197	ORISOAIN		TABAR
198	ORONTZE	243	URROTZ
199	OROTZ-BETELU	244	URROTZ
203	PETILLA DE ARAGON	245	URZAINKI
204	PIEDRAMILLERA	246	UTERGA
207	PUIU	247	UZTARROZE
209	ERROMANTZATUA	248	LUZAIDE
	ARBONTZE	252	BIDANKOZE
	BIOTZARI	253	BIDAURRETA
	DOMEÑU	255	VILLAMAYOR DE MONJARDIN
	MURILLO-BERROIA	256	HIRIBERRI-AEZKOA
210	ERRONKARI	260	DEIERRI
211	ORREAGA		ALLOTZ
212	ZARE		ARANDIGOIEN
213	SALDIAS		ARITZALA
214	JAITZ		ARITZALETA
217	SAN MARTIN UNX		AIZKOA
219	SANTSOL		BEARIN
222	SARTZE		ERAUL
	IBILTZIETA		GOROZIN
	SARTZE		IBIRIKU-DEIERRI
225	SORLADA		IRUÑELA
226	SUNBILLA		LAKAR
229	TIRAPU		LORKA
230	TORRALBA DEL RIO		MURELU-DEIERRI
231	TORRES DEL RIO		MURUGARREN
233	TULEBRAS		ERREZU

KODEA	UDALERRIA	KODEA	UDALERRIA
	UGAR		ARRAITZA
	HIRIBERRI-DEIERRI		UBANI
	ZABAL		ZABALTZA
	ZURUKUAIN	263	ZUBIETA
261	ESA	264	ZUGARRAMURDI
262	ZABALTZA	265	ZUÑIGA

---

## **Foru Legea, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena buruzkoa**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen dien Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Foru Legea, lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako beste osasun langileei zabaltzen diena**

#### ZIOEN AZALPENA

Osasun laguntza kopuruz nahiz kalitatez hobetzeko xede orokorraren barnean ulertu behar da osasun langile fakultatiboendako lanbide karreraren eredu errearen ezarpena osasun sistema publikoaren esparruan. Horretarako, oinarriko alderdi batzuk erabili behar dira neurgarri, baita horiek garatu ere. Horietariko bat, prestakuntza jarraitua da, kalitate tekniko-asistentziala hobetzeko norberak egiten duen ahaleginaren adierazlea baita. Bertze bat, berriz, bideak irekitzea da, profesionalak parte hartze handiagoa eta hobea izan dezaten osasun zerbitzuen zuzendaritza eta kudeaketan. Hirugarrenik, pizgarriak eta bultzagarriak jarri behar dira, ahaleginak modu egokian bideratzeko eta osasun laguntzan lortutako emaitzak saritzeko.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura atxikitako langileen araubide juridikoaren gaineko berariazko arauteriaren barnean, urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak, 34. artikuluan, langileen sustapena bultzatzeko bide ezberdinak ezarri ditu. Zehatz-mehatz, haren d) letrak foru lege batera geroratzen du, lanbide karreraren oinarrituriko soldata-pizgarrien ezarpena. Ahalmen hori erabiliz, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen bitartez arautu da Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboen lanbide karrerako sistema,

gero abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez garatu dena.

Foru lege horretan eta hura garatzen duen araudian, lanbide karrerako sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileei aplikatzen zaie, baldin eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa izan bada Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatuaren eta Farmaziako lizentziatuaren titulua edukitzea (1. artikulua), baita, Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikirik egonik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua ukitzen duten osasun plangintza, ebaluazio eta ikuskatzaitetzan ari diren langileei ere, titulazio horiek eskatu bazaizkie (hirugarren xedapen gehigarria).

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen lehenbiziko xedapen gehigarriak ezartzen du zilegi izanen dela foru lege baten bidez finkatzea lanbide karrerako sistema Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko bertze langileei ere aplikatzea, Osasun Sistema Nazionalan edo Nafarroako funtzio publikoan antzeko irizpideak ezartzen badira. Aplikatzeko, betiere negoziazio kolektiboa egin beharko da.

Hartara, foru lege honen bitartez heltzen zaio osasun sistema publikoko bertze profesional batzuk parekatzeari, Medikuntzako eta Kirurgiako lizentziatuen eta Farmaziako lizentziatuen gisa berean, eriei laguntza kliniko diagnostiko eta terapeutikoak ematen dizkietenak edo beren ekarpen profesionalarekin guztien osasunaren babesari sostengu nabarmena ematen diotenak, hala nola osasun publikoko albaitariak edo Osasun Zientzietako titulazio ofizialak, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak nahiz Osasun eta Kontsumokoak onartuak, dauzkaten profesionalak. Eta hori horrela da, zeren eta espezialista horien egitekoak, batetik, sendagile eta botikarienen parekotzat hartzen baitira –eta horrek aipatu Foru Legearen lehendabiziko xedapen gehigarriak aipatzen dituenen barnean sartzan ditu– eta, bertzetik, garrantzizkotzat hartzen baitira osasun sistema publikoaren jarduketa multzoaren barnean.

Jakitun izanik zenbait lizentziatu ezin zitezkeela lanbide karrerako pizgarritik kanpo gelditu, hau da, osasun sisteman, alor klinikoan barik, bertzeak bezain egiteko garrantzizkoak (osasun plangintza, ebaluazio eta ikuskatzaitetza) dituzten Medi-

kuntzako eta Kirurgiako lizentziatuak eta Farma-ziako lizentziatuak, 11/1999 Foru Legeak langile hauek bere aplikazio esparruan hartu zituen, nahiz eta, antolaketa arrazoiengatik eta langile gehienek ez bezalako atxikipen organikoa izateagatik, hirugarren xedapen gehigarriaren bitartez egin zuen. Alde horretatik, foru lege horri osasun jarduketaren bertze zutabe funtsezko bat ahantzi zitzaien, lan osasuna alegia, Osasunari buruzko Foru Legearen 14. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz; berriz ere, antolaketa eta langile gehienek ez bezalako atxikipen organikoa edukitzea izan ziren horretarako arrazoiak, nahiz eta, oraingoan, Nafarroako osasun sistemaren barnean izan.

Horregatik eta foru lege honen bitartez, Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikirik egonik osasun plangintzan, ebaluazioan eta ikuskatzaile-tzan ari diren langileen integrazioari heltzen zaio, titulazioaren aldetik legeak ukitutako gainerako profesionalendako ezarritako baldintza berak betetzen badituzte. Gisa hartara, beharrik gabeko diskriminazioak eragozteko urratsak ematen dira.

#### **1. artikulua.** Helburua.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legeak ezarritako lanbide karrerako sistemaren aplikazio esparrua zabalduko zaie Osasun Departamentuko eta haren erakunde autonomoetako osasun langile fakultatibo guztiei, baldin eta lanpostua jabetzan badute eta haien sarbide eta izendapenerako nahitaezkoa bada edo izan bada urriaren 20ko 11/1992 Foru Legean aurreikusitako "Fakultatibo espezialistak" edo "Bertze osasun fakultatiboak" izeneko estamentuetan lanpostuaren koadramenduan sartu ahal izateko osasun titulazioetako edozein edukitzea.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen 1. artikulua 2. idatz-zatiko langileak lanbide karrerako sistematik at egonen dira, betiere.

#### **2. artikulua.** Araubide juridikoa.

Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikitako osasun langile fakultatiboek, aitzineko artikuluan sarturik badaude, lanbide karrerako sistema aplikatuko zaie, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriari eta hura garatzen duten arauetan Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikitako langileendako ezarritako erregelei jarraikiz.

#### **3. artikulua.** Ondorio ekonomikoak.

Foru lege honek 2002ko urtarrilaren 1etik aitzina sortuko ditu ondorio ekonomikoak, apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriari eta hura garatzen duten xedapenetan ezarritako erregelei eta prozedurari jarraikiz bakoitzari dagokion maila esleitutakoan.

#### **4. artikulua.** Ebaluazio batzordeak.

Ebaluazio batzorde hauen eskumena izanen da, lanbide karrerako sistemaren aplikazioa zer profesionali zabaltzen zaien, haiexen ebaluazioa:

a) Osasunbideari atxikitako langileen ebaluaziorako, atxikipen zentro edo zerbitzuaren arabera dagokion ebaluazio batzordeak izanen du eskumena.

b) Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari eta Nafarroako Lan Osasunaren Institutuari atxikitako langileen ebaluaziorako, Osasun Publiko, Administrazio eta Osasun Kudeaketako Ebaluazio Batzordeak izanen du eskumena.

**Azken xedapenetan lehenbizikoa.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Erregelamenduzko garapena eta legearen betetzea.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, foru lege hau zuzen bete eta garatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

## **Foru Lege proiektua, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren titulua (Kontratazioa) aldatzekoa**

### *OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2002ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko seigarren titulua (Kontratazioa) aldatzeko Foru Lege proiektua baztertu zuen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Legea, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

### **Nafarroako liburutegien sistema arautzen duen Foru Legea**

#### **ZIOEN AZALPENA**

Gizarte demokratiko baten askatasuna, garapena eta aurrerapena erdiesteko bidea herritarrak beren eskubideez baliatzen heztea eta informazioa, jakintza eta kultura libreki eskuratzen laguntzea da, nork bere erabakiak har ditzan eta gizartearen bizitzan paper aktiboa izan dezan. Informazioa izatea eta menpean edukitzea integrazio ekonomiko, sozial eta kulturalerako faktorea da. Beraz, komeni da antolatu eta bermatzea herritarrek informazioa libreki eskura izatea.

Hezkuntza, Zientzia et Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen (Unesco) iritzia da liburutegi publikoa hezkuntza, kultura eta informaziorako indar bizia dela, bakea, ongizatea eta kulturen arteko elkarrizketa lortzeko eragile funtsezkoa. Unescok 1994an liburutegi publikoei buruz emandako manifestuak ezartzen du liburutegi publikoa erabiltzaileei mota guztietako jakintza eta informazioa ematen dien informazio gune lokala dela.

Liburutegi publikoaren lehentasunezko lanetako bat da herritarrei eskaintzea ezinbesteko eta oinarritzko informazioa, hura guztien eskura jarri, edozein delarik ere prestakuntza maila, gizarte egoera edo bizitokia. Horrela, liburutegia lagunga-

ri gertatzen da informazioaren gizarte demokratiko, ireki eta gardena erakitzeke bidean.

Komunikazioen garapen teknologikoari esker informazio eta kultur bolumena etengabe handitu da sareetan edo bestelako euskarri digitaletan. Liburutegi publikoek bermatu behar dute horiek eskuratzea, usadiozko komunikabideen eta berrien arteko zubi lana eginez.

Liburutegi publikoaren gaineko erantzukizuna tokiko administrazioena da. Berariazko legeri baten euskarria eduki behar du eta funts publikoen bidez finantzatu.

Erantzukizun horretaz jabeturik, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak liburutegi publikoak sortzen eta mantentzen lagundu izan du. 1950eko abuztuaren 12an Nafarroako Foru Diputazioak Liburutegi Publikoen Sarea sortzeko erabakia hartu zuen. Orduz geroztik, udalekin lan-kidetza hitzarmenak izenpetuz, liburutegien kopurua handitzen joan da, baina epe luzeko plangintza baten falta sumatu da, baita Nafarroako geografia osoan liburutegi zerbitzuaren garapen orekatua antolatzeko irizpide orokorra ere.

Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.9 artikulua dio Nafarroak erabateko eskumena duela "Historia, arte, monumentu, arkitektura, arkeologia eta zientzia-ondarea, esportazioaren eta espoliazioaren aurka ondare horren defentsarako Estatuak dituen ahalmenak deusetan ukatu gabe."

Lege Organiko horren 44.10 artikulua, berriz, ezartzen du Nafarroak erabateko eskumena duela, halaber, honen gainean: "Agiritegiak, liburutegiak, museoak, hemerrotekak eta Estatuaren titulartasunekoak ez diren kultur-gordailurako gainerako zentroak."

Bestalde, Toki araubideko oinarriak arautzen dituen Legeak, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 26.1

artikuluaren b) letran zehazten du 5.000 biztanle-tik gorako udalerriek honako zerbitzu hauek eman beharko dituztela: parke publikoa, liburutegi publikoa, azoka eta hondakinen tratamendua.”

Beraz, Nafarroako Foru Komunitateko eta toki administrazioetako eskumen erabatekoek baliatuz, bidezkoa da Nafarroako liburutegien sistemari buruzko foru lege bat onestea, liburutegien zerbitzua zehaztu eta arautzeko. Lege horrek ezarri beharko ditu, halaber, zerbitzu horrek eduki beharreko ezaugarriak eta egitura, zertarako eta bi alderdi hauek bermatzeko: zerbitzua bera eta Nafarroako herritarrek informazioa publikoki eskuratzeko eta irakurketarako duten eskubidea egiaz erabili ahal izatea.

Nafarroako liburutegi zerbitzua garatzeko esparrua eta, horren barrenean, liburutegi publikoarena, berariazko lege baten bidez zehazteko garaia da, eta horren bidez printzipio orokorrak taxutu eta administrazioen zerbitzu estandarrik eta erantzukizun mailak ezarri.

## I. KAPITULUA Xedapen orokorrak

### 1. artikulua. Foru legearen xedea

Foru lege honen xedea da Nafarroako liburutegien sistema arautzea, bai eta herritar guztiek irakurketa eta informazioa eskura izan dezaten bermatu eta erraztea jakintzaren gizartearen eta teknologia berrien eremuaren barrenean.

### 2. artikulua. Liburutegiaren kontzeptua.

Liburutegia da, foru lege honen ondorioetarako, liburuez, aldizkako argitalpenez, grabatuez, mapez, soinu, ikus-entzunezko eta multimedia grabazioez, dokumentazio grafikoez eta bestelako material bibliografikoez, eskuizkribuez, inprimakiez edo edozein euskarritan erreproduziturikoez osaturiko edozein multzo antolatu, baldin eta horren xedea bada dokumentu horiek bildu, hautatu, katalogatu, gorde eta zabaltzea, baita pertsona guztien eskura jartzea ere, bitarteko egokiak –teknika, espazio eta langileen arloetakoak– erabiliz informazioa, ikerketa, hezkuntza eta aisia helarazteko.

**3. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak.

Honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eskumenak:

a) Nafarroako liburutegien sistemaren alderdiak zuzendu eta garatuko dituzten erregelamenduak ematea, hala nola, Nafarroako liburutegien sistemaren koordinazioa, liburutegiko kudeaketa-

ren oinarri orokorrak, azpiegituren baldintza teknikoak, bildumen printzipioak, langileak eta antzeko gaiak.

b) Irakurketa publikoaren mapa onetsi eta gaurkoturik edukitzea.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, berrikusi eta gaurkotzea.

d) Nafarroako liburutegien sistemaren laguntza zerbitzuak garatu eta kudeatzea.

e) Liburutegi zabalkunderako programak sustatu eta laguntzea.

f) Nafarroako liburutegien sistema osatzen duten zentroak eta liburutegi guztiak ikuskatu eta zerbitzuen kartera betetzen ote den ebaluatzea.

g) Liburutegiak eta liburutegi zerbitzuak sortu eta hobe daitezten sustatzea, bai eta Nafarroako liburutegi sistemako liburutegien funts bibliografikoen kopurua handitzea eta teknologia berriak sartzea.

h) Liburutegi zerbitzuen plan estrategikoa bost urtean taxutzea berriz, bertan garatzeko liburutegi zerbitzuaren jardueretan eta hura ematean segitu beharreko jarraibideak, epe motz eta luzerako helburuak zehazteko eta horiek erdiesteko behar diren baliabideak planifikatzeko, irakurketa publikoaren mapak eta kudeaketarako gainerako tresnek zedarrituriko esparruan.

### 4. artikulua. Toki entitateen eskumenak.

1. Toki entitateen eskumenak liburutegien arloan Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 8/1990 Foru Legean ezarritakoak dira.

2. Eskumen horiek Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan erabiliko dira, zenbait printzipioren arabera –koordinazioa, eraginkortasuna eta lege honetan ezartzen diren eskumen esparruen errespetua–, irakurketa publikoaren mapak xedatutakoaren barrenean, bai eta toki entitateek eta Nafarroako Gobernuak izenpeturiko hitzarmenetan, halakorik izenpetzen bada, xedatutakoaren barrenean ere.

## II. KAPITULUA Nafarroako liburutegien sistema

### 5. artikulua. Nafarroako liburutegien sistema

1. Nafarroako liburutegien sistema Nafarroako Foru Komunitateko liburutegien eta liburutegi-organo eta zerbitzuen multzo antolatua da.

2. Nafarroako liburutegien sistema honakoek osaturik dago:



a) Liburutegien arloan eskumenak dituzten Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta toki administrazioaren organoak.

b) Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.

c) Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

d) Unibertsitateetako liburutegiak, liburutegi espezializatuak eta liburutegiaren titularrak eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak izenpeturiko hitzarmenaren bidez –Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dena– Nafarroako liburutegien sisteman sartzen diren gainerako liburutegiak. Hitzarmen horretan zehaztuko dira liburutegiaren jardunbidea, instalazioak, zerbitzuak, langileak eta finantzabidea, bai eta helburuak betetzeko behar diren beste gai guztiak.

e) Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako eskola liburutegiak erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

**6. artikulua.** Nafarroako liburutegien sisteman sartzearen ondorioak.

1. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegi guztien jardunbidea Nafarroako Gobernuak emaniko erregelamenduzko xedapenei lotuko zaie, bai eta sisteman sartzeko aurreko artikulua aipatzen duen hitzarmenari ere, halakorik badago.

2. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiak laguntza zerbitzuez baliatu ahalko dira, baita erregelamenduz ezarriko diren edo sisteman sartzeko hitzarmenean adierazirik dauden beste laguntza edo lankidetzak mota batzuez ere.

3. Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegiek parte hartu beharko dute lankidetzak programa komunitatean, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren liburutegien arloko organo eskudunak arau indardunak oro betetzen dituen egiaztatze eskatutako datu bibliografikoak eta estatistikoak eta edozein informazio eman beharko dio liburutegiak eta organo horrek jarduna ikuskatzeko izendatzen dituen funtzionarioei utzi beharko die haien lana egiten.

**7. artikulua.** Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak

1. Liburutegi egonkorrik ez dagoen tokietan edo zailtasunak dituzten pertsona edo taldeentzat irakurketa publikoaren zerbitzua eskaintzen dutenak dira.

2. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak mota askotakoak izan daitezke, erantzun beharreko premien, erabiltzaileen ezaugarrien eta abarren

arabera: zerbitzu ibiltariak, teleliburutegia, mailegu kolektiboak...

3. Liburutegi zabalkunderako zerbitzuak Nafarroako liburutegi publikoen sistemako edozein liburutegiren menpe egon daitezke baina, betiere, eremuko liburutegi zentralak koordinaturik beteko dira.

4. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako liburutegien sisteman sarturiko liburutegien bidez eta irakurketa publikoaren mapan eta zerbitzuen karteran xedatutakoari jarraikiz, liburutegi zabalkunderako programak sustatuko ditu, bai eta horiek gauzatzen diren ingurunean egon daitezkeen beste kultur zerbitzuekin koordinatzea ere.

**8. artikulua.** Laguntza zerbitzuak.

1. Laguntza zerbitzuak modu zentralizatuan emanen dira, Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiei sostengu logistiko eta materiala, aholkularitza eta beste edozein motatako laguntza eta lankidetzak eskaintzeko.

2. Zerbitzu horiek laguntza eta lankidetzak ematen dute honako arlo hauetan: funtsen hautaketa, materialen erosketa eta katalogazioa, katalogo kolektiboaren koordinazio eta kudeaketa, liburutegien arloko ikerketa, langileentzako prestakuntza iraunkorra, kudeaketa administratiboa eta langileena eta antzekoak.

### III. KAPITULUA

#### Nafarroako liburutegi publikoen sistema

**9. artikulua.** Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kontzeptua eta egitura.

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistema liburutegi publikoen multzo antolatua da eta, irakurketa publikoaren mapan ezarritakoarekin bat, herritar guztien eskura jartzen du liburutegi zerbitzuen kartera.

2. Honako hauek dira Nafarroako liburutegi publikoen sistema osatzen dutenak:

a) Nafarroako Liburutegia.

b) Nafarroako Foru Komunitateko administrazioarekin hitzarmenak izenpetuz Nafarroako liburutegi publikoen sisteman sarturiko udal eta eskualdeko liburutegi publikoak.

**10. artikulua.** Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketarako ildoak.

1. Eremu geografikoen arabera dezentralizazioa, partaidetza eta liburutegiaren eta haren zerbitzuen ebaluazioa dira Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren kudeaketaren ildo nagusiak.

2. Liburutegi publikoek, haien ebaluazioa errazteko, urtero eginen dute jardueraren eta jardunbidearen datu nagusiak eta hurrengo urteko aurreikuspenak bilduko dituen oroit-idazki bat.

**11. artikulua.** Liburutegi publikoaren kontzeptua.

1. Liburutegi publikoak dira funts orokorra izan, kultura, hezkuntza, josteta eta gizarte mailetako informazio zerbitzuak –baita kontsulta eta mailegukoak ere– eskaini, eta herritar guztien eskura daudenak, adina, arraza, sexua, erlijioa, nazionalitatea edo gizarte maila kontuan hartu gabe.

2. Liburutegi publikoak zerbitzu bereziak eskainiko dizkiete helduei eta haurrei. Era berean, kontuan hartuko du Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa, eta zerbitzuak euskaraz eta gaztelaniaz emanen ditu, Euskararen Legeak, abenduaren 15eko 18/1986 Legeak alegia, araututakoarekin bat.

**12. artikulua.** Liburutegi zerbitzuen definizioa.

1. Hauexek dira liburutegi zerbitzu oinarrizkoak:

a) Monografiak eta argitalpen seriatuen, dokumentu elektroniko, ikus-entzunezko eta multimedien irakurketa eta kontsulta, aretoan.

b) Informazioa eta erreferentzia, orokorrak eta Europar Batasunekoak, eskura izatea.

c) Liburuen eta bestelako materialen banakako mailegua.

d) Liburutegien arteko mailegua.

e) Internet eta lineako informazio zerbitzuak eskura izatea.

2. Gutxieneko zerbitzuak hauexek dira:

a) Erreferentziako lan nagusien kontsulta.

b) Liburuen banakako mailegua.

3. Nafarroako liburutegi publiko guztiek eskainiko dituzte dohainik oinarrizko zerbitzuak. Halere, liburutegien arteko mailegu zerbitzua eta zerbitzu informatikoak erabiltzeagatik, horien kostua ordaintzea eskatu ahalko zaie erabiltzaileei.

**13. artikulua.** Irakurketa publikoaren mapa.

1. Irakurketa publikoaren mapa liburutegiko plangintzarako tresna bat da, eta bertan jasotzen dira Nafarroako liburutegien sistemako liburutegiak, irakurketa publikoaren premiak eta populazio guñeei dagozkien zerbitzu moduluak.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak onetsi eta gaurkoturik edukiko du Nafarroako ira-

kurketa publikoaren mapa. Nafarroako Gobernuak eginen ditu irakurketaren maparen aldaketak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari kontsulta egon ondoren.

3. Irakurketa publikoaren mapak irakurketa eremuak zehaztu eta zedarrituko ditu eta identifikatuko du Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren barrenean zein diren liburutegi publikoaren oinarritzko zerbitzuez gain haien eremuan liburutegi zabalkunderako zerbitzuak eta liburutegien arteko mailegu zerbitzuak, baita irakurketa publikoaren mapak berak edo zerbitzuen karterak ezarritakoak ere, eskaintzen dituztenak.

**14. artikulua.** Zerbitzuen kartera.

1. Nafarroako liburutegien sistemaren zerbitzuen kartera da herritarrei irakurketa publikoaren mapari jarraikiz ematen zaizkien liburutegi zerbitzuen multzoa. Zerbitzuen karterak adieraziko du zeinek ematen duen eta noiz den zerbitzu bakoitza, nahikotasun eta kalitate mailak zehazturik.

2. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari eta Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalari kontsulta egin ondoren, liburutegi publikoen sistemaren zerbitzuen kartera garatu, aztertu eta gaurkotuko du.

**15. artikulua.** Nafarroako liburutegi publikoetako sistemako langileak.

1. Nafarroako liburutegi publikoetako sistema zentroek eta liburutegiek behar adina langile izan beharko dituzte, bai kopuruan, bai lanpostuak eskatzen duen kalifikazio teknikoan.

2. Langileen baldintza profesionalak eta lanpostuak eskuratzeko modua erregelamenduz ezarriko dira.

**16. artikulua.** Nafarroako Liburutegia.

1. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren liburutegietan lehena da eta Nafarroako ondare bibliografikoaren arduradun gorena. Haren betekizuna Nafarroako ekoizpen bibliografikoa bildu, gorde eta zabaltzea da, idatzizko ekoizpena, –aldizkako izan zein ez, ikusizkoa, soinuak eta multimedia, inpresoa edo beste edozein euskarritan dagoena barne.

2. Nafarroako Liburutegiaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez finkatuko dira.

3. Liburutegi publikoari dagozkion eginkizunak ez ezik honakoak ere beteko ditu, Nafarroako libu-

rutegi publikoen sistemaren liburutegia nagusia den aldetik:

a) Nafarroan argitaraturiko edo ekoiztutako obra guztiak bildu, gorde eta zabaltzea. Horretarako, lege gordailua jasotzen duena da.

b) Nafarroarekin zerikusia duten obra guztiak, Nafarroari buruzkoak edo nafar egileek idatziak baina lege gordailuaren bidez sartu ez direnak, eskuratu, gorde eta zabaltzea.

c) Nafarroako bibliografia egitea.

d) Nafarroako ondare bibliografikoaren kontserbazioaz arduratu eta ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa Nafarroan prestatzeko lanak koordinatzea.

e) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren ordezkari izatea Espainiako liburutegien sisteman eta beste liburutegi sistema batzuetan.

f) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren jardunbidea egokiagoa izan dadin haren esku utzitako gainerakoak.

**17. artikulua.** Udal eta eskualdeko liburutegiak.

1. Udal liburutegiak dira tokian tokiko udalerrian edo eskualdean irakurketa publikoaren mapari jarraikiz liburutegiko gutxieneko zerbitzuak ematen dituztenak.

2. 20.000 biztanletik gorako herri guztiek hiri-liburutegi zentral bana izan beharko dute, irakurketa publikoaren mapak ezarritako gainerako zerbitzu guneekin edo liburutegiekin koordinaturik.

#### IV. KAPITULUA

**Unibertsitateetako liburutegiak, eskola liburutegiak, bestelako ikastetxeetako liburutegiak (irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetakoak) eta liburutegi espezializatuak**

**18. artikulua.** Unibertsitateetako liburutegiak

1. Unibertsitateko liburutegia da unibertsitateko komunitateari jakintza eskuratu, transmititu eta ezagutzan aurrera egitea ahalbidetzen dion erakundea.

2. Informazioa eskuratzeko, katalogaziorako, liburutegien arteko mailegurako, langileak prestatzeko eta balio historiko edo kultural nabarmeneko funtsak babesteko, Unibertsitateetako liburutegiak liburutegi publikoen sistemaren gainerakoekin koordinatuko dira, Nafarroako Liburutegiaren bidez.

**19. artikulua.** Eskolako liburutegiak

1. Eskolako liburutegiak oinarritzko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabat txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleen ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

2. Hezkuntza sistemari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezartzen du ikastetxe guztietan egon behar dela liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, ikasle eta irakasleei irekia eta foru legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adinako baliabide –dokumentalak, tokiaren aldetikoak zein langileenak– izanen dituen.

3. Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxe publikoetako liburutegien antolaketa, jardunbidea, jarduerak eta finantzaketa erregelamendu batek arautuko ditu berariaz.

**20. artikulua.** Eskola liburutegien eta liburutegi publikoen arteko lotura

1. Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza teknikoa, erabilitzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.

2. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak hitzarmen bidez ezarri eta erregelamenduz garrantuko dira.

**21. artikulua.** Liburutegi espezializatuak

1. Funts berezia dutenak dira, batez ere jakintzaren arlo berezi baten barrenean.

2. Liburutegi espezializatuak Nafarroako Liburutegiaren bitartez koordinatzen dira gainerako liburutegien sistemarekin.

#### V. KAPITULUA

**Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala**

**22. artikulua.** Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atala.

1. Nafarroako Liburutegien Kontseilua Nafarroako Gobernuaren kontsulta eta aholku organoa da Nafarroako liburutegien inguruko gaietan.

2. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalaren eginkizunak hauexek dira:

a) Txostenak ematea liburutegien arloko xedapen orokorren proiektuei buruz, irakurketa publikoaren mapari buruz eta zerbitzuen karterari buruz.

b) Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren antolaketari, jardunbideari eta koordinazioari begira ekimenak eta hobekuntza planak proposatzea.

c) Erregelamenduz bere gain utzitako gainerako guztiak.

3. Nafarroako Kultur Kontseiluaren Liburutegien Atalaren antolaketa, jardunbidea eta osaketa erregelamenduz ezarriko dira.

**Lehendabiziko xedapen iragankorra.** Egokitze epea.

Lege honi lotu behar zaizkion egungo liburutegiak legeak indarra hartu eta gehienez bost urteko epean egokitu beharko zaizkio legerari.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Nafarroako liburutegi publikoen sistema.

Nafarroako liburutegi publikoen sareko liburutegiek izaera horri gordeko dute Nafarroako liburutegi publikoen sisteman, irakurketa publikoaren mapak edo dagokion hitzarmenean xedatutakoak besterik xedatzen ez badu.

**Azken xedapenetan lehendabizikoa.** Erregelamenduzko garapena.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio foru lege hau betetzeko behar diren arauzko xedapenak eman ditzan.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzekoa**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA*

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen irakaskuntza eta erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas del Parlamento de

Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 30eko 92. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokratikaren Elkargu-nea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko urriaren 7ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzekoa**

### *OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA*

Biltzarrak, 2002ko azaroaren 7an egindako Osoko Bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal aurkeztutako Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako unibertsitate irakaskuntzan euskararen erabilera arautzeko Foru Lege proposamena aintzat ez hartzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2002ko urriaren 14ko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 15ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan**

*ERRETIRATUTAKO MOZIOA*

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Langabeziaren ondoriozko babes-sistema eraldatzeko eta laneragarritasuna hobetzeko presako neurriei buruzko maiatzaren 24ko 5/2002 Legegintzako Errege Dekretua erretira dezan".

Biltzarrak, 2002ko urriaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aipatutako mozioa erretiratu zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2002ko irailaren 16ko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2002ko azaroaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

---



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri  
edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> <b>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</b> Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat ..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	